

## XEDAPEN OROKORRAK

### SEGURTASUN SAILA

## 2334

*AGINDUA, 2017ko maiatzaren 2koa, Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita joko-makinen betekizunak eta ezaugarri teknikoak eta haien interkonexio-baldintzak arautzen dituen 2017ko martxoaren 17ko Agindua.*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.c) artikuluan xedatzen duenez, aldizkarian egindako hutsak edo omisioak maila bereko xedapen edo ekintza batez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira eta, horiek zuzentzearen ondorioz, xedapen, ekintza edo iragarkiaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Era horretako hutsak aurkitu dira joko-makinen betekizunak eta ezaugarri teknikoak eta haien interkonexio-baldintzak arautzen dituen Segurtasuneko sailburuaren martxoaren 17ko Aginduan (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 62. zk.). Hori dela eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen:

2017/1629 (23/11) orrialdean, 19.2.a) artikuluan,

honela dio:

«Gutxienez 800 makina interkonektatuko dira interkonexio-sistema bakoitzeko»

baina hau esan behar du:

«Gutxienez 800 makina interkonektatuko dira interkonexio-sistemak ematen dituen enpresa bakoitzeko»

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 2a.

Segurtasuneko sailburua,  
ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRONIZ.